

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6809

3/2009 LEGEA, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzko eta Babesteko legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak abenduaren 23ko 3/2009 Legea, Haurrak eta Nerabeak Zaintzko eta Babesteko legea aldatzekoa onartzen dituena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Haurrak eta Nerabeak Zaintzko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen xedea da haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea, eta, hala, haien eskubide eta erantzukizunen erabilera bermatzea. Ze-hazki, honako hau du xede:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetan bizi diren edo dauden haur eta nerabeek hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europako Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkienetan eskubideak erabili ahal izango dituztela.

b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzko eta babesko esku-hartzek zein esparrutan egin behar diren ezartzea, haurrek eta nerabeek familia- eta gizarte-inguruneetan behar duten garapena bermatze aldera.

c) Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesko arloan eta arauhausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta egin-kizun horretan eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea ere.

Lege horrek, V. Tituluko I. Kapituluan, erakunde-antolamendua ezartzen du, eta Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundea aurreikusten du haurren eta nerabeen eskubideak mehatxatzen edo urratzen diren egoeren aurkako defentsa-organo gisa, eta orobat Euskal Autonomia Erkidegoan bi gizatalde horiei buruzko sentikortzea eragiteko eta bi gizatalde horiek sustatzeko. Horretarako, legearen 96. artikuluan erakunde de horren izaera juridikoa ezartzen da; 97. artikuluan haren eginkizunak arautzen dira; 98. artikuluan haren antolamendua ezartzen da eta 99. artikuluan haren finantzabidea aurreikusten da, Euskal Autonomia

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6809

LEY 3/2009, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley 3/2009, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, tiene por objeto la atención y protección a la infancia y la adolescencia en garantía del ejercicio de sus derechos y de sus responsabilidades. En particular, tiene por objeto:

a) Garantizar a los niños, niñas y adolescentes que residan o se encuentren en territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco el ejercicio de los derechos que les reconocen la Constitución, la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño, la Carta Europea de los Derechos del Niño y el ordenamiento jurídico en su conjunto.

b) Establecer el marco de actuación en el que deben ejercerse las actividades de fomento de los derechos y del bienestar de la infancia y la adolescencia, así como las intervenciones dirigidas a su atención y protección, en orden a garantizar su desarrollo en los ámbitos familiar y social.

c) Definir los principios de actuación y el marco competencial e institucional en el ámbito de la protección a niños, niñas y adolescentes en situación de riesgo o de desamparo, así como en el de la intervención con personas infractoras menores de edad.

En el Título V de la citada Ley, dedicado a establecer la organización institucional, se contempla en su Capítulo I la figura de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia como órgano de defensa ante situaciones de amenaza o vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia y de sensibilización y promoción de éstas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. A tal fin, el artículo 96 de la Ley establece la naturaleza jurídica de esta institución, el artículo 97 regula sus funciones, el artículo 98 articula su organización y el artículo 99 prevé su forma de financiación mediante consignación anual

Erkidegoko Aurrekontu Orokoretan urtero-urtero diru-izendapen bat eginez gauzatuko dena.

Hori gorabehera, indarrean dagoen zuzenbide-antolamenduari dagokionez, Arartekoaren Erakundea Sortu eta Arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak honako eginkizun hau esleitzen dio Arartekoari: herritaren eskubideak bermatzea administrazio publikoekin dituzten harremanei dagokienez.

Gainera, otsailaren 18ko 3/2005 Legeak berak, VI. Tituluan, eskumen jakin batzuk esleitzen dizkie foru-aldundieei eta udalei haurren eta nerabeen eskubideen defentsaren inguruko sentiberatzearren arloan. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak berretsi egin ditu eskumen horiek.

Hau da, lege horrek Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundeari aitortzen dizkion eginkizunak ondo betetzen dituzte dagoeneko udalek, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, edo Arartekoak berak. Hala bada, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundea izateak eskumen-gatazkak sortzea eta eginkizunak edo zereginak gainjartzea ekar ditzake aipatutako administrazioei eta erakundeari dagokienez; hori aintzat hartuta komenigarria da, beraz, defentsarako erakunde hori kentzea.

Asmo horrekin, lege-aldaketa honen xedea da otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 96., 97., 98. eta 99. artikuluak indargabetzea.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, «Euskal Herriari dagozkion konpetentziak» izeneko I. Tituluko 10. artikuluaren 12. eta 39. paragrafoetan, eskumen esklusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte-laguntzaren eta komunitate-garapenaren arloan, baita emakumearen egoeraren arloan eta haurrentzako, gazteentzako eta hirugarren adinekoentzako politikaren arloan ere.

Artikulu bakarra.— Indargabeturik geratzen dira Haurrek eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen V. tituluko I. kapituluko 96., 97., 98. eta 99. artikuluak, lehenengo xedapen iragankorra, laugarren xedapen gehigarria eta bosgarren xedapen gehigarria, eta ezabatu egiten dira Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundeari buruz lege horretako 17.2.c, 80.2.k eta 93.2.k artikuluetan egiten diren aipamenak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lege hau indarrean sartzen den unean, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundeari atxikitako baliabide ekonomikoak eta materialak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari itzuliko zaizkio. Langileei dagokienez, funtzio publikoari buruzko arautegian ezarritako prozedurari jarraituko zaio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak berratzikitzeko kasuetan.

en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ello no obstante, en el ordenamiento jurídico vigente, la Ley 3/1985, de 27 de febrero, por la que se crea y regula la institución del Ararteko, atribuye al Ararteko la función de garantizar los derechos de los ciudadanos y de las ciudadanas en su relación con las administraciones públicas.

Además, la propia Ley 3/2005, de 18 de febrero, atribuye en su Título VI determinadas competencias a las diputaciones forales y a los ayuntamientos en materia de sensibilización en defensa de los derechos de la infancia y la adolescencia. Dichas competencias han sido reiteradas en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Es decir, las funciones que la mencionada Ley reconoce a la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia se ejercen ya de manera satisfactoria bien por los ayuntamientos, diputaciones forales y Gobierno Vasco, o bien por la institución del Ararteko. En consecuencia, la existencia de esta defensoría puede dar lugar a conflictos de competencias y solapamientos de funciones con las administraciones e institución citadas que aconsejan la supresión de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia.

Con esta finalidad, la presente modificación legal tiene por objeto la derogación de los artículos 96, 97, 98 y 99 de la Ley 3/2005, de 18 de febrero.

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, dentro del Título I «De las competencias del País Vasco», en el artículo 10, apartados 12 y 39, reserva a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de asistencia social y desarrollo comunitario, condición femenina y política infantil, juvenil y de la tercera edad.

Artículo único.— Quedan derogados los artículos 96, 97, 98 y 99 del Capítulo I del Título V, la Disposición transitoria primera, la Disposición adicional cuarta y la Disposición adicional quinta de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, y se suprimen las menciones a la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia en los artículos 17.2.c, 80.2.k y 93.2.k de dicha Ley.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el momento en que entre en vigor la presente Ley, los medios económicos y materiales adscritos a la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia se reintegrarán al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales. En cuanto al personal, se seguirá el procedimiento establecido en la normativa de función pública para los supuestos de readscripción de puestos de trabajo reservados a funcionarios.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Haurrek eta nerabeek jasaten dituzten mehatxu eta eskubide-urraketengatik sortutako kexa eta salaketen gainean Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundean kudeatzen ari diren espedienteak Arartekoari bidaliko zaizkio, aztertu eta ebatz ditzan. Gainerako espedienteak, berriz, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari helaraziko zaizkio.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratuko dira maila bereko edo txiki-agoko arau guztiak, lege honetan xedatutakoari aurka egiten diotenean edo harekin kontraesanean daudenean, eta, bereziki, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen antolamenduaren eta funtzionamenduaren erregelamendua ezartzen duen apirilaren 1eko 56/2008 Dekretua. Orobak, askatasunaz gabetzen duten neurriak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa-zentroei buruzko apirilaren 21eko 80/2009 Dekretuaren 5.4 eta 40. artikuluek erakunde horri buruz egiten dituzten berariazko aipamenak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari-an argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 23a.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los expedientes que se encuentren en tramitación ante la Defensoría de la Infancia y la Adolescencia referidos a las quejas y denuncias por amenazas y vulneración de los derechos de la infancia y la adolescencia se trasladarán para su conocimiento y resolución a la institución del Ararteko; de los demás expedientes, se dará traslado al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente Ley, en particular el Decreto 56/2008, de 1 de abril, por el que se establece el reglamento de organización y funcionamiento de la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, así como la expresa mención a las referencias que a dicho órgano contienen los artículos 5.4 y 40 del Decreto 80/2009, de 21 de abril, sobre centros educativos de cumplimiento de medidas privativas de libertad en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.